LARUNBAT SANTUA…
JESUS HIL DA… eta ORAIN, ZER?
ISILTASUNA

Maitasuna euskarri –

Celebrando testimonios de amor

Bilboko Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO
Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de Anuncio y Catequesis

Begiratu ondorengo irudiei…

https://www.youtube.com/watch?v=0-GTQHVwlrw

Zer sentiarazten dizute?

Bakardadea, tristura, isiltasuna….



Larunbat santura iritsi gara. Atzo, Jesus hilda, hilobian utzi genuen. Isiltasunaren, hustasunaren, tristuraren… unea da. Ikasleek porrot egin zutela sentitzen zuten. Jesusekin bizi izandako guztia biziaren, itxaropenaren… iturri izan zen eta orain… dena amaitu zen? Dena alferrik izan zela ematen du, etorkizun handiko ametsa, baina amets ustela…

Zentzuzkoa ote zen “azkeneraino” maitatuz bizi izateak hala bukatzeko?

Gaur, etxean konfinaturik, han eta hemen, munduko bazter guztietan, milaka hildako uzten ari den pandemiaren erdian, Jesusen lehen ikasle haiek sentitu zutena uler dezakegu.

Gauden egoeran, geuk ere zalantza dugu, ziurgabetasuna, beldurra, tristura. Gaua gainera etorri zaigula dirudi. Egonkortzat, segurutzat… geneukan bizi-erritmoa goitik behera aldatu da.

Hainbat galdera sortzen da. Atsekabeturik gaude hainbeste sufrimendurekin… Eta beharbada honelako galderak ere egiten dizkiogu geure buruari: non ote da Jainkoa guzti honen erdian? Nola liteke hainbeste oinaze?

Isilunea eginin, begiratu zeuon barrura eta galdetu zeure buruari…

- Birusa hedatu den honetan, konfinamenduan… beldur izan zara? Noiz? Zergatik?
- Noiz sentitzen zara triste?
- Zeure bizitzako esperientzian… noiz sentitu duzu porrota, apurketa, galera?

Isilunearen ostean, familian komentatu. Kontatu elkarri zuon beldurrak, zergatik eta noiz sentitu zineten triste.



KONFIANTZA IZATERA DEITUAK

Ikasleak harrituta egongo ziren… Jesusek biziaz, zorionaz, osotasunaz,… hitz egin zien behin eta berriro… Eta orain, zer? Jesus hil egin zen eta ez zegoen beraien artean. Dena iruzurra izan ote zen?

Azken Afarian, Jesusek bere azkena hurbil zela sumatu zuenean, Apostoluei azken mezuak utzi zizkien. Besteak beste, hauxe esan zien:

"Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere" (Joan 14,1)

Jainkoarengan konfiantza osoa jartzeko, beldurrik ez izateko, esan zien, adibide emanez, Berak, gainera zetorkion Gurutzearen aurrean, larrituta, baina konfiantzaz beteta, hauxe esan baitzuen: ***"Aita, egin bedi zure nahia, ez nirea"*** (Lukas 22, 42) eta beranduxeago: ***"Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia"*** (Lukas 23,46).

Jesusek badaki Jainko Aitarengan uste osoa jar daitekeena. Izan ere, antzina bere herriari hauxe agindu zion:

"Ez izan beldur, zeurekin bainauzu; ez larritu, zure Jainkoa bainaiz. Neure laguntzaz ahaltsu egiten zaitut, neure esku garaileaz eusten dizut"
(Isaías 41,10).

Eta horrela erakusten digute Jainkoaren jarraitzaileek ere historian zehar.

Sufrimenduaren, atsekabearen, larritasunaren… gainetik, posible da bere Maitasunean eusten gaituen Jainkoarengan itxarotea eta konfiantza izatea.

(HELDUENTZAT): Hona hemen horietako baten lekukotasuna: Dietrich Bonhoeffer (teologo eta artzain protestantea, naziek atxilotu eta 1945ean urkatu zutena)

https://www.youtube.com/watch?v=ABlRi_oPe2k

Segundo batzuez isiltasuna egin…
"Ondo babestuta" sentitzen zara?

(TXIKIENTZAT): Helduek olerkia entzuten duten bitartean, haurrek **ITXAROPENA – ESPERANZA** hitza idatziko dute paperean apaindutako letra handiz.

(Gero jarri etxeko leihoan, konfiantza eta itxaropenezko mezua zabaltzeko)

Berriz ere, elkarrekin, galdera hauei erantzun eta batera jarri:

- Zer diotsu, gaur, ITXAROPOENA hitzak?
  (Familian txikirik balego, gure ustez gaur egun Jesusek esango zituzkeen hitz edo esaldi laburrak esan ITXAROPENA / ESPERANZA hitzaren letretatik hasita, esate baterako:
  I: Itxaropena izan
  T: Tolerantzia
  X: Xarmangarria)
- Gaur Larunbat Santuan egonda ere, ez noiz ez nola bukatuko den egoera bizirik ere, itxaropentsu zaude? Baduzu itxarote lasairako, itxaropenerako arrazoirik?
- Zertan oinarritzen da zure itxaropena?

Elkarrekin egiteko…

Gaur, larunbat Santua, zur eta lur utzi gaituen sufrimenduaren eta heriotzaren aurrean isilik egoteko eguna da.

Minutu batzuez, bizi isiltasuna familian, mandalak margotzen dituzuen bitartean. Familiako kide bakoitzak mandala aukeratuko du eta barneratzerako lagungarria den musika jarrita dugula, margotzen arituko gara, patxadaz isilik, **Jesusek konfiantza izatera deitzen gaituela** pentsatzen dugun bitartean.

Amaitzean, nola sentitzen garen esango diegu gainerako senideei.

Mandalen bilduma:
https://esnatu.bizkeliza.org/wp-content/uploads/2018/05/mandalas-esnatu.pdf

Musika hausnarketarako:
https://www.youtube.com/watch?v=J0bBVeqlQfM&t=3188s

Otoitzaldi honi amaiera emateko, Aitari otoitz egingo diogu Jesusek irakatsi zigun otoitzaz baliatuz: GURE AITA.

Eta horrela, isilik Jesusen hilobiaren aurrean, galdera eginez amaituko dugu: Merezi ote du itxaroteak? Merezi ote du Jainkoarengan konfiantza jartzea, Jesusek egin zuen bezala?

Zentzuzkoa izan ote da azkeneraino maitatuz bizitzea, bizia Maitasunez ematea?

Batzuetan itxaron egin beha dugu

Batzuetan itxaron egin behar dugu,
ez zaigulako hitzik ateratzen
eta bizia eten egiten delako.
Batzuetan isildu egin behar dugu,
malkoek hitz egiten dutelako eta
ez delako beste ezer esateko.
Batzuetan irrikatu egin behar dugu,
errealitatea ez delako nahiko
eta orainak ez duelako erantzunik.
Batzuetan sinetsi egin behar dugu,
nabaritasun eta
amore ematearen aurka.

Batzuetan bilatu egin behar dugu,
lainoz inguraturik gaudenean,
argirik ez dagoela dirudienean.
Batzuetan otoitz egin behar dugu,
otoitz bakarra galdera dela
ematen badu ere.
Batzuetan pazientzia izan behar dugu
eta harlauzen ondoan eseri,
ez dute-eta betirako iraungo.

José María Rodríguez Olaizola, sj

Beldur naiz

Beldur naiz, izuturik nago.
Ez dut ezer txarrik jasaterik nahi, baina ezin dut saihestu.
Eta gauzak oker ateratzen badira? Eta ona hondatzen bada?
Leku seguruan ezkutaturik geratu nahiko nuke,
dena igaro arte inork aurkituko ez nauen lekuan.
Lasai egon nahi nuke, kezkatu gabe.
Lagun iezadazu!
Inork mugitu ezin dezakeen harkaitz sendo eta segurua baitzara!
Zeuk diostazu: ez zaitzala beldurrak garaitu!
Ez nazazu eskutik askatu.
Zeuk laguntzen didazu lasai ibiltzen, baita beldur naizenean ere.
Zutaz fio naiz, badakit,
lehenago ala beranduago,
lagunduko nauzuna!
Amén.